

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2026ko ekainaren 16ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

373/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak zenbait erakundetan duen ordezkaritza berritzeari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

374/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Ibilgailu industrialak hornitzeko kontratuaren 1., 3. eta 4. loteak Automoción Agromotor SA, Autocentro Armentia SA eta Auto Electricidad Ondo SA enpresei esleitzea, hurrenez hurren, aurkeztutako eskaintzaren eta kontratazioan indarrean dauden gainerako baldintzen arabera.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

375/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea enpresa batek aurkeztutako berregituraketa planaren proposamenari atxikitzeari eta haren aldeko botoari.

376/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea 2026rako hiri eta landa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak ordaintzeko, Vitoria-Gasteizko udalerrian dauden higiezinengatik.

#### BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

377/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Artziniegako Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematea, "Artziniegako Dorreko Erlojuak" proiekturako.

378/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzari kudeaketa gomendioa egiteari; zehazki, Arabako Foru Aldundiko Miñoien Atalean zerbitzuak ematen dituzten Ertzaintzako kideei diziplina espedienteen instruzioa egiteko kudeaketa gomendioa egiteari.

379/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzeko EH Bildu batzarkide taldeak aurkeztutako foru arau proposamena kontuan hartzearen aurkako irizpideari.

#### EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

380/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Robotekin Elkar-teari zuzeneko dirulaguntza bat ematea, robotikako eta automatizazioko euskal ekosistema sendotu eta garatzeko.

381/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Kuartangoko Udalari zuzeneko dirulaguntza bat ematea, "Kuartango Lab" egitasmoa sendotu eta zabaltzeko.

#### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

382/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea behar diren zenbatekoen esleipena Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 27ko 17/2025 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren deialdia ebazteko.

383/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea 2025/2026an oinarrizko lanbide heziketako, batxilergoko edo erdi edo goi mailako heziketa zikloetako ikasketak bizi diren udalerritik kanpo egin dituzten ikasle gazteentzako garraiorako dirulaguntzen deialdia.

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

384/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak antolatutako ekitaldietarako eszenatokiak, karpak eta beste elementu batzuk alokatu, garraiatu, muntatu eta desmuntatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Zenbatekoa gehienez 145.000,00 euro, BEZa barne. Gauzatzeko epea: urtebete.

385/2026 Erabakia, ekainaren 16koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea zuzeneko dirulaguntza emateari Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaindegiari, presazko interbentzioak finantzatzeko Laguardiako Erregeen Santa Maria elizpean.